

#### 3 osteguna

21:00etan.- "Nosotros alimentamos al mundo" filmaren emanaldia.

#### 17 osteguna

21:00etan.- "Déjame entrar. Lat den ratte coma in Raed" filmaren emanaldia.

#### 29 osteguna

21:00etan.- Laburmetraiaren emanaldia.

#### 30 osteguna

21:00etan.- Laburmetraiaren emanaldia.

### ERAKUSKETAK

Lanegunetan: 19:00/21:00 Jaiegunetan: 12:00/14:00 - 19:00/21:00

#### 2tik 13ra

"20 urte hegaletan/20 años en los extremos" Benito Cantero eta J. Agustín Gurrutxagaren argazki erakusketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

#### 18tik urtarilaren 3ra

Goierriko artisten VIII. Topaketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

### ANTZERKIA EUSKARAZ.

#### 4 ostirala

22:30etan.- "Kanpaia jo bitartean", Glu-Glu taldearekin.

#### 10 osteguna

19:00etan.- "Maletak prest".

#### 12 larunbata

17:00etan.- Haur antzerkia: "Kika supersorgina".

#### 27 igandea

17:00etan.- Haur antzerkia: "Babiliglub" Galitoo taldearekin.

### ZINEA EUSKARAZ.

#### 5 larunbata

17:00etan.- "Puk eta bere garabia", haur zinea.

19:30etan.- "Sukalde kontuak".

#### 11 ostirala

22:15etan.- "Zorion Perfektua".

#### 19 larunbata

17:00etan.- "Animal Channel", haur zinea.

19:30etan.- "Berri ona".

#### 26 larunbata

17:00etan.- "Cristobal Molon", haur zinea.

#### 30 larunbata

19:30etan.- "Goalzen".

#### 2 asteazkena

09:30etan.- Haurrentzako euskarazko zinea: "Lepel". Usurbe Antzokian.

18:00etatik 21:00etara.- Gabonetako Sukaldaritza Iker Martínez sukaldariarekin. Aizkorri Mendizale Elkartean. Udal Euskaltegiak antolatuta.

#### 11tik 13ra

LIBURU AZOKA. Gernikako Pasealekuan.

#### 13 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: "Gaintza inguratuz". Aizkorri Mendizale Elkartek antolatuta.

#### 15 asteartea

09:00etan.- "Peter Roberts mimoa" eskola-kanpaina. Usurbe Antzokian.

#### 17 osteguna

12:45etan.- Antzerkia ingelesez: "Huckleberry Finn". Usurbe Antzokian.

20:00etan.- Kontzertua: Musika Eskolako Banda, ikasleak, Abesbatza, Korala, Akordeoi Orkestra. Andre Mari Zeruratuaren parrokian.

#### 20 igandea

19:30etan.- Loinatz Abesbatzaren kontzertua. Andre Mari Zeruratuaren parrokian.

#### 23 asteazkena

19:30etan.- IV. Gospel Zikloa: The Upper Room Gospel. Udal Batzar Aretoan.

#### 24 osteguna

12:00etan.- Ikastetxeen bilkura. Gernika pasealekuko frontoian.

17:30etan.- Gabon-Eskea. Igartzako Errotatik.

#### 25 ostirala

12:00etan.- Udal Txistulari Bandaren kalejira.

#### 26 larunbata

22:15etan.- Dantza jaialdia Ostadar taldearekin. Usurbe Antzokian.

#### 28tik 30era

HAUR PARKEA. Antzizar Kiroldegian.

#### 29 asteartea

19:00etan.- Aitziber Saldiasen "Quenna" liburuaren aurkezpena. Udal Batzar Aretoan.

#### 31 osteguna

12:00etan.- San Silvestre krossa. Beti Bizi elkarteak antolatuta.

# Alfilen 50. urteurrena

4


EUSKARA  
Abenduan Zinea Euskaraz,  
Antzerkia eta Liburu  
Azoka antolatuko dira

8

GABON-ESKEA  
Antzinako tradizio hori  
berreskuratu nahi dute  
aurtengo Gabonetan

10

ELKARRIZKETA  
Gorka Elustondo eta Asier  
Sarriegi beasaindarrak  
aurrez aurre



2010 urteari ongi etorria emateko  
dotore jantzi da Beasain.

Beasaindar guztioi

**ZORIONAK eta URTE BERRI ON!**

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



**H**emen dugu jada urteko hamabigarren alea, azkena, urtea abian doan seinale. Ezin esan urte aparta izan denik, krisia dela eta gerrikoa estutu behar horretan etxe askotan kezka eta noraeza izan baitira nagusi.

Aurrera begira asmo batzu bazterrean utzi beharrak, ezinbestean hamaika ohitura aldatzeak, neurritz kanpo bizi garen seinale besterik ez direlakoan nago.

Ditxosozko irabaziak, dirua azken finean, ez ote zaizkigu Jainko berri bihurtu? Era honetako galderak maiz entzun dira aurtan. Une latza lanpostua galdu dute-

**GABON ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI!**

nentzat! Udaleko Ongizate saila gogor ari da lanean behar gorrian daudenei laguntzak bideratzeko asmoz.

Gabon egunekin batera etorri ohi da askoren hausnarketa: opari, janari, edari, ospakizun... erosi eta erosi. Gizarte kontsumista honetan ez da nahikoa azaleko apaingarriak, argiak etab. kentzea, nola eta barne-barnetik ez datorren ohitura aldaketa.

Begiak pittin bat irekitzea nahikoa da nonahi jasaten ari diren gosete, pobrezia, langabezia, behar, gorroto... ikusteko. Eta gu?

Gabonak zorionari ere egiten dio bidea. Zorionarekin batera bakea eskeintzeko garaia da. Apaltasunez eta begirunez elkar besarkatzeko. Une gozoak gogoratzeko famili giroan: "...aitaren eta amaren ondoan..."

Tienes en tus manos el último ejemplar del año. Sin casi darnos cuenta se ha ido el año. Un año que por otra parte ha dejado su impronta: la crisis provoca preocupación e incertidumbre en muchas familias... y está obligándonos a apretarnos el cinturón. Creo que los cambios de costumbres, la vuelta a la austeridad que se percibe en la sociedad es un signo evidente de que quizás hemos vivido por encima de nuestras posibilidades.

Son cada vez más habituales entre nosotros preguntas como ¿El ganar y ganar dinero, no se ha convertido en el nuevo Dios? Pero el contraste es manifiesto: es muy dura la situación de los que han perdido su puesto de trabajo y la de sus familias; de los que han tenido que emigrar para buscar trabajo. El Departamento de Bienestar Social se está esforzando por atender a los que se han quedado en la miseria.

Las Navidades provocan una necesaria reflexión: regalos, comidas, celebraciones... Reflexión que nos debe llevar a un cambio profundo de nuestra forma de vivir.

Si abrimos los ojos a nuestro entorno el hambre, la miseria, el paro, el odio... son el espectáculo cotidiano. Y la pregunta surge inevitable: ¿Nosotros qué actitud adoptamos ante esta situación? Navidades significa felicidad y paz. Tiempo para con humildad y respeto abrazarnos. Tiempo para recordar en familia momentos dichosos y recordar a los seres queridos. Tiempo de alegría y esperanza de un mundo mejor.

FELICES NAVIDADES A TODOS LOS BEASAINDARRAS.

## Gernika pasealekuko frontoi estalia, jaigunea!



**Arantxa Sanz**

"Nik bi alderdietatik izan dut erlazioa frontoi estaliarekin: ekitaldi bat eskaintzen izan naiz, baita ikusle moduan ere. Lehen kasuan, Udazken Kulturalean Ostadar dantza taldeko partaide bezala emanaldi bat egin genuen eta euskal soinu-tresnen erakusketa egin genuen.

Oso leku ona dela iruditzen zait; herriak behar zuen horrelako leku bat, herria bera horrelakoa delako. Gauzak gertu eta parez-pare jarri behar dira jendea zerbait ikustera joateko, eta frontoia oso ondo kokatuta dago horretarako. Gainera, leku estalia da, haizetik nahiko ongi babestua dago.

Egia da, soinuaren aldetik, ez dela leku perfektua. Bai emanaldiaren kasuan, bai ikusle moduan joan naizenean, haurrak jolasean asko entzuten dira, parkea bertan dagoelako.

Estetikoki, gustatu zait. Ez da pisutsua egiten bistarako, itxura berezia eta arina dauka".

**José Ignacio Sánchez**

"Desde el principio me pareció fenomenal el proyecto de cubrir el frontón. Está muy bien que esté cubierto para eventos, para que jueguen los niños... Además, está colocado en un punto muy bueno del pueblo: céntrico, al lado del paseo. No es que la ubicación de la plaza fuera mala, pero creo que ésta está muy bien para pararte y ver cosas.

Opino que se le está dando un uso apropiado y muy aprovechado. He estado en varios actos que se han celebrado allí y mis nietos juegan en el parque. Para el mercado también creo que es una buena zona.

Estéticamente, hubo quien dijo que parecía un circo, pero yo siempre digo que hay que ver las cosas terminadas, y a mí me parece que está bien.

Desde luego, como beasaindarra, creo que ha sido un acierto y que hay que seguir en esa línea.



**Milagro Zabaleta**

"Lekua oso ondo dagoela uste dut. Ekitaldiak eta egiteko oso leku aproposa da. Herriak behar zuen horrelako leku bat. Ume asko dago eta hemengo eguraldiarekin, batez ere orain negua datorrela, jolasteko leku bat behar dute.

Bai ekitaldietarako, bai baserritarren merkatu-rako, leku gehiago dago eta argiagoa eta zabalagoa da. Frontoia egotea ondo zegoen, baina oraingo lanekin hobeto dagoela uste dut. Hala eta guztiz ere nik ikusi diot akatsen bat. Lehendabizi, ez dute bizikletentzako aparkalekurik jarri, eta nik, bizikletan mugitzen naizela, horretarako gune egokia izan zitekeela uste dut. Bigarrenik, jendea hor biltzea bada helburuetako bat (ekitaldietan, umeekin jolasean...) komunak gertu izatea beharrezkoa da. Eta azkenekoa, agian ez horren garrantzitsua, ekitaldi eta horrelakoetarako, ez dagoela aldagelarik. Akats txiki horiek kenduta, egindako lana ondo dagoela uste dut".

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:  
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:  
SS-1284-2008



943 02 80 50



vdala@beasain.net

**OHARRA**

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:

www.beasain.net

# ABENDUUKO AGENDA, EUSKARAZ

## ① ZINEA ETA ANTZERKIA

### Una gran oportunidad para disfrutar de cine y teatro en euskera

En diciembre habrá la oportunidad de ver cine en Euskera en Beasain. Durante el año, los más pequeños ya disfrutaron de esa oportunidad, pero para los adultos no resulta tan fácil. Gracias a un acuerdo con la Filmoteca Vasca, en diciembre se podrá disfrutar de 7 películas en euskera al precio de 3 euros. Para los más pequeños, "Plus eta bere garabia", "Animal Channel" y "Cristóbal Molón". Los jóvenes podrán ver el musical Goazen y para los adultos se proyectarán "Sukalde kontuak", "Zorion perfektua" y "Berri ona". En lo referente al teatro, en diciembre se podrán ver 4 funciones de teatro en euskera en Usurbe Antzokia. Habrá obras para todas las edades. En los dos casos, el día y al hora de los pases y funciones está detallado en la agenda de la última página.



**Kanpaiak jo bitartean**  
Sarrera: 8 euro.

Neska gazte bat, amatasunaren deia jaso berri, medikuaren kontsultara doa intseminazio artifiziala egin diezaioten. Mutil gazte bat, semen emailea, hilero bezala bere dosia entregatzera doa. Ustekabeko kointzidentziak ezagutu berri den bikotea etengabeko gaizki ulertzean nahastuko du, egoera barregarri bezain zalapartatsuetara bidaia egiteko.



**Maletak prest**  
Kutxak babestutako antzezlan. Sarrera: doan.

Maletak prest, ilusioa aurpegian eta nerbioak urdailean. Bidaia baten bitartez, beraien existentziaren arrazoia bilatzen duten hiru pertsonaje. Hurrengo geltokia: Brasil, maitasuna, beldurra. Bidaia metaforikoan zehar beraien bizitzen agintea hartu nahi dute.



**Kika supersorgina**  
Haur antzerkia, 7tik 11 urtera. Sarrera: 4 euro.

Kika etxeko lanak egiten aspertuta dago. Magia liburuari esker fantasiaren mundura igaroko da eta irudimenezko mundu horretan ipuinetako zenbait pertsonaia xebrerekin egingo du topo.



**Babiliglub**  
Haur antzerkia. Urte 1etik 6a. Sarrera: 4 euro.

Un pequeño pez quiere integrarse en al vida del mar, pero no encontrará más que el rechazo de todos; de todos, menos el de una estrella que se empeña en imitar todos sus movimientos. Juntos, buscarán la aceptación de los demás en mil aventuras.

## ② GAZTE ASTEA

### Gabonetako oporrak gazteak dira

Abenduaren 23tik 30era, herriko txikiek eta gazteek oporretan hainbat ekintza egiteko aukera izango dute Gazte Astearen eskutik. Jaiegunetan izan ezik (abenduaren 24an eta 25ean) egunero izango dute zer egin: kirola, jolasak, festak... Kirolari dagokionean, saskibaloian, futboleak, Skatean eta abar aritzeko aukera izango dute gazteek. Gainera, DJ emanaldia egongo da. Dantza gustuko dutenek, Break dance ikastaroak izango dituzte eskura. Baina hori ez da dena. Abenduaren 28a, Inuxenteen Eguna, egun monografikoa izango da. Saio horretako jardura guztiak txantxa eta bromen inguruan antolatuko dira. Aurten ahalegin berezia egin da 11-18 urte bitarteko gazteentzako interesgarriak izan daitezken jarduerak lantzeko. Beraz, anima zaitetz gazte! Beasainen, Gabonetako oporrak, gazteak dira eta!

| EGUNA                                       | EKINTZA                                                                                            |
|---------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Abenduak 23, asteazkena                     | Futbol txapelketa<br>Eguerdian bazkaria                                                            |
| Abenduak 26, larunbata                      | Saskibaloia 3 x 3<br>Play eta Wii txapelketa                                                       |
| Abenduak 27, igandea                        | Pilota txapelketa<br>Ping-pong eta futbolen txapelketa                                             |
| Abenduak 28, astelehena<br>"Inuxente eguna" | Bizikleta zirkuitua<br>Txapa, abalorio... tailerrak<br>Break ikastaroa<br>Inuxente eguna egitaraua |
| Abenduak 29, asteartea                      | Break ikastaroa<br>DJ emanaldia+<br>Skate lehiaketa+erakusketa                                     |
| Abenduak 30, asteazkena                     | Txapa+abalorioa+Grafitiak<br>Break erakustaldia<br>Merienda jatea<br>Goazen filmea                 |



## ③ LIBURU AZOKA

### La producción en euskera del año, al alcance de todos

La Liburu Azoka se celebrará del 11 al 13 de diciembre. El objetivo de la Azoka es la de poner al alcance de todos los beasaindarras los productos en euskera elaborados durante este año, y, año tras año, muestran la música, literatura, productos multimedia y juegos en euskera.

Este año, el frontón del paseo Gernika será el escenario de la Azoka. Los años anteriores también ha sido así, pero esta vez, gracias a los trabajos para cubrir el frontón, los organizadores dispondrán de más espacio.

Además de poder ver y comprar los productos citados, los visitantes también podrán disfrutar de presentaciones de libros, una exposición de juguetes y participar en distintos talleres.

### Beasaindar gazteak bertsoan

Bertso Eskolan ere izango du bere tokia Liburu Azokan. Aurten, 8 ikasle ditu hirugarren urtez antolatu den eskola horrek, 6 mutil eta bi neska, 9 eta 12 urte bitartean. Asteartero eguerdian biltzen dira eta Bertsolari Txapelketa Nagusia dela-eta, txapelketetako bideoak aztertzen dihardute orain. Errimak eta doinuak lantzen dituzte, etorkizunean bertsoak bat-batekoan bota ahal izateko. Momentu hori iristen den bitartean, bertso batzuk lantzen ari dira Liburu Azokan egiten dakitena guztioi erakusteko.





Ya en sus primeros años, Alfíl competía en varios campeonatos.



Jokin Fernández, Alberto Martín, Santi Coco y Genaro Sánchez.

**El ajedrez no es el más popular de los deportes. ¿Os han preguntado alguna vez "por qué el ajedrez"?**

**Alberto:** A mí me lo preguntan a diario en la fábrica...

**Santi:** La mayoría no conoce el ajedrez, no saben lo que es. Creen que es un juego, no lo entienden, y la verdad es que exige mucha capacidad mental.

**Genaro:** Es difícil que un chaval se interese por el ajedrez, porque la oferta deportiva es tan amplia... Desde hace unos años se incluye el ajedrez en el deporte escolar, y eso ha ayudado mucho a que haya jóvenes que juegan al ajedrez. Y si una pequeña parte de todos los chavales que prueban con el ajedrez mediante el deporte escolar sigue jugando, nos damos por satisfechos.

**¿El ajedrez se complementa con otros deportes?**

**Alberto:** Yo he practicado otros deportes. Durante unos años dejé el ajedrez y jugué al fútbol, pero volví al ajedrez. No es imprescindible, pero

# 50 años

Alfíl elkarteak bere jaiotzatik mende erdia igaro dela ospatuko du abenduaren 8an. Xakera dedikatutako kultura-elkartearen 'mozorroa' zeraman elkarte gastronomiko bezala jaio zen Alfíl. Izan ere, garaiko lege kontuengatik, beharrezkoa zen elkarteei zentzu kulturala ematea. Jadanik herrian zeuden elkarteak errepasatu, eta kide batzuek xakean jolasten zekitenez, Alfíl izena eman zioten. Pasadizoak alde batera utzita, Alfílek xakearen kirola bultzatu du Beasainen azken 50 urteotan, eta horregatik, Zorionak Alfíl!

es verdad que estar bien físicamente ayuda a estar mejor en las partidas.

**Santi:** Yo hice un parón de 10 años y me dió por el ciclismo, y ahora he vuelto al ajedrez. Estar bien físicamente te ayuda a estar relajado y la concentración es mayor, la mente trabaja más cómoda.

**Genaro:** El ajedrez es un deporte personal, que requiere de un aprendizaje también muy personal, y aunque se juega por equipos, es un deporte individual. Cada vez te va pidiendo más y te vas midiendo personalmente ante otra persona. Pero aunque dejes de jugar un tiempo, ves a alguien hacerlo, te pica el gusanillo y vuelves a jugar.

**El 8 de diciembre es vuestro gran día.**

**Jokin:** El 6 de diciembre se celebrará un torneo de jóvenes promesas en los que podrán participar distintas categorías. Habrá premios para todos, algunos de ellos en metálico. Además, se va a organizar un autobús que recogerá a chavales de toda Gipuzkoa para que puedan venir a competir a Beasain ese día.

**Genaro:** El propio día 8 habrá una comida conmemorativa del aniversario con distintas sociedades gastronómicas del pueblo, autoridades, etc. Además, con motivo de el aniversario, el torneo que anualmente se celebra en fiestas de Loinaz ha sido de carácter especial.

**Supongo, que habrá alguien al que queráis dar las gracias.**

**Genaro:** Al margen del ajedrez, tenemos mucho que agradecer a la sociedad, porque se hace cargo de los gastos y porque gracias a ellos hemos podido seguir adelante. Además, desde el Ayuntamiento siempre hemos tenido apoyo, siempre se han volcado con nosotros.



Leoncio Bodego y Javier González, Presidente y secretario de la Sociedad Alfíl

## de ajedrez en la Portería



"Abenduaren 8an 50 urte beteko ditu Alfíl xake elkarteak"

Jorge Aizpun, Leire Conde eta Daniel Aizpun

"Gure aitak eta aitonak xakean jolasten dute", azaltzen dute Jorgek eta Danielek, "eta txikitatik jolasten dugu. "Ni orain hasi naiz", dio Leirek. "Txikitik jolasten nuen baina uzten joan nintzen. Oso neska gutxi daude, nik uste dut pazientzia gutxiago daukagulako. Aurrera azkar egiten ez badugu, alde batera utzi ohi dugu. Ni berriro hasi naiz Jorgerekin komunean dudana zer bait delako".

1959

♔♚♜♞♝♟♡♢♣♤♥♧♨ S.A. ALFÍL ♜♞♝♟♡♢♣♤♥♧♨

Como toda sociedad gastronómica, el asunto culinario ha sido importante en Alfíl. De unos años a esta parte sus cocineros participan (y ganan en ocasiones) en los concursos gastronómicos intersociedades. "Este año está siendo bastante especial por el 50 aniversario de la Sociedad, y porque hemos organizado varias cosas entorno a esa celebración. Como presidente, eso me ha supuesto más trabajo, pero hay que celebrarlo", dice Leoncio. Como curiosidad, ninguno de los dos sabe jugar al ajedrez.



Harrobi zabala dauka Alfílek.

# Antzinako tradizioari eutsiz, kanta-kantari neguko solstizioa ospatzeko



► Andoni Sarriegi.

## Noiztik dator Beasainen Gabon-eskean irteteko ohitura?

Gabon-eskean edo Belen eskean ibiltzeko ohitura aspaldikoa eta herrikoa da Beasainen, batez ere auzoz auzo eta baserriz baserri aritzeko ohitura. Hala eta guztiz ere, dirudienez 1936ko Gerraren aurretik ez zegoen Olentzero kaletarra ilunabarrean eta era antolatuan kaleetan ibiltzeko ohitura handirik, eta Gerra ostean ez zen horrelakoetarako girorik izan.

## Orduan, noiz hasi zen Beasaingo kaleko Gabon-eskea?

Lehenago egon ziren hasiera batzuk, baina benetako indartzea 1957an izan zen, On Frantzisko Mitxelenaren eskutik. Urte hartan, Luistar eta Mariaren Alabez osatutako neska-mutil talde bikaina kale-ratu zen Olentzerorekin. "Berri bat zabaldu da", "Egin maite", "Olentzero". "Horra-Horra", "Gabon", "Hator-Hator" eta "Birjina maite" abesteko ohitura zuten, gehienbat. Horrez geroztik, gauza asko gertatu dira: garai onak, garai txarrak, aldarrikapen desberdinengatik Gabon-eskea atera ez ziren urteak, talde bat baino gehiago atera ziren urteak...

## Gabon-eskearen ardatza kantua dela defendatzen duzu.

Hala da. Nire ustez, berdin du asko edo gutxi ateratzen diren, baina entzun egin behar zaie. Egun hori kalean sentitu egin behar da. Estetikoki bizi da (baserritarrez ateratzen da jende asko eta hainbat koa-drila), baina ez mamia, eta horretarako kantua behar da. Zein kantu? Horretan eztabaidak egon daitezke, erlijiosoagoak, zibilagoak... Baina, era batera edo bestera, kantua. Gaur egun musikaz inguratuta gaude, baina kanturako ohitura galtzen ari dela uste dut. Gazte jendeak du giltza; gai horri beraiek heldu behar diote eta aurrera egin!

## Atera nahi al duzu?

Hala bada, abenduaren 16an, arratsaldeko 19:00etan entsegua egiteko elkartuko dira antolatzaileak, eta herritar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera. Lau abesti kantatuko dira: Olentzero joan zaigu, Hator-hator, Horra Mari Domingi eta Haur eder baten bila.

Abenduaren 24an, trikitiaz lagunduta, Igartzako Errotatik aterako dira arratsaldeko 17:30ean. Herritik behera jaiten joango dira, hainbat geldialdi eginez kantuak abesteko. Hala, Zapatari kalean, geltoki aurrean, Gernika pasealekuko frontoian, Joan Iturralde plazan, Senpere kalean, Bideluze plazan eta Zaldizurreta kalean egingo dituzte geldialdiak.

El 24 de diciembre, día de Nochebuena, a las 17:30 horas, se invita a todos los beasaindarras a salir a cantar y recuperar la celebración del solsticio de invierno.

Todo el que quiera participar puede unirse al ensayo que se celebrará el 16 de diciembre a las 19:00 horas en el Frontón del paseo Gernika.

Se cantarán 4 canciones: Olentzero, Hator-hator, Horra Mari Domingi y Haur eder baten bila.



# Urbietta etxea artez betea

El Centro de Artes Plásticas Urbietta alberga varios talleres que permiten a los beasaindarras dar rienda suelta distintos modos de expresión, como son, por ejemplo, la pintura, la cerámica o la radio.



Pintura tailerra ► JOKIN TELLERIA

"Jokin Tellería lleva 8 años dando clases de dibujo y pintura en la Casa Urbietta, y antes de eso dió clases otros 8 años. "Entre niños y adultos vienen unos 90 alumnos. Empiezan con el lápiz y poco a poco empiezan a meter color: pastel, óleo, acrílico, etc.", explica Jokin. Cada año, organizan una exposición y suelen hacer cursos especiales. "Si es posible, hacia verano, solemos salir a pintar paisajes al natural. Creo que es importante aprender a pintar así, y desde aquí no podemos ver paisajes más que en fotos".



Irritzaileak ► AITOR MARTIN

"Txikitan, jostailuzko walky-talkie batzuekin jolasean, pertsona bat sartu zen gure frekuentzian. Ordizian irratizale elkarte bat zegoela esan eta hala sartu ginen mundu honetan", azaltzen du Aitor Martinek. Ekintza asko egiten dituzte, horien artean, beste irratizale elkarteekin batera, as-tan behin irratizale batek -lanbide askotako irratizaleak daude eta- gai baten inguruko konferentziak ematen ditu. Gainera, "irratia, momentu askotan, geratzen den komunikazio bide bakarra da", -argitzen du Aitorrek-, "lurrikara baten ostean, adibidez, eta momentu horietan oso garrantzitsua da irratizale elkarteek osatzen duten sarea".



Zeramika tailerra ► MAITE SALUTREGI

20-25 pertsonak lantzen dute zeramika Urbietta Etxean. Beraiek kontratatuta, Pott Zeramikako Jone Urain eta Maite Salutregi izaten dituzte irakasle astean bitan. "Guk programa bat eratzen dugu, oinarriko metodologia bat, eta horrez gain, bakoitzak nahi duena lantzeko aukera dauka", azaltzen du Maite Salutregik. "Buztin mota desberdinak lantzen ditugu eta kurtso bukaeran erakusketa bat antolatzen dugu. Jendea harritu egiten da tailerrean lortzen den emaitzarekin, eta hobetzen jarraitzea espero dugu!".

## Homenaje a los ertzainas asesinados en Beasain

A petición del Ayuntamiento de Beasain, los integrantes del Taller de Cerámica han realizado una escultura en homenaje de los dos ertzainas asesinados el 23 de noviembre de 2001 en la zona en la que hoy está la rotonda de Zaldizurreta. Varios alumnos del taller realizaron sus propuestas y fueron ellos mismos los que, finalmente, eligieron la escultura de Mari Carmen García. Entre todos han llevado a cabo la escultura final. La inauguración se celebró el 23 de noviembre a la misma hora del asesinato de los dos agentes, a las 19:15 horas.



## FRENTE A FRENTE

Aitor Sarriegi – Gorka Elustondo

Los dos son de Beasain. Uno es bertsolari. El otro futbolista. Un punto en común: Anoeta. Elustondo tiene allí su casa futbolística, en el campo de fútbol. Sarriegi buscó en el velódromo su pase a la final del campeonato de bertsolaris de Euskadi. En esta entrevista, les hemos propuesto un juego: meterse en el mundo del otro.

**Gorka, animatuko al zinateke bertsotan?**

**Gorka:** Nahiko lan...

**Eta zu Aitor, futbol zalea al zara?**

**Aitor:** Jarraitzen dut zeozer, baina ez naiz forofoa.

**Zeintzuk dira Bertsolaritza Txapelketa nagusirako zure kinielak?**

**Aitor:** Finalerdietan ikusiko da nire benetako aukerak zein diren. Esperantzak badauzkat; aurrekoan bezain ondo edo hobeto egin beharko dut Anoetako finalerdian. Finalerako, aldaketen urtea izan daiteke, baina ez nago oso konbentziturik. Andonirekin batera abestuko dutenen artean, segurua badaude, beraz, geratzen diren 3 postuetarako 9 lagun gaude lehian.

**Gorka, zure kasuan, tamalez, profesioa eta lesioa nahiko lotuta joan dira. Eta errimarekin jarraituz, zeintzuk dira zure ilusioa, pasioa, bizioa eta perdizioa?**

**Gorka:** Denak antzerako. Ilusioa, lehen mailara bueltatzea, futbolari guztion helburua da goi mailan jolastea. Pasioa, betidanik izan dut futbola. Beste kirolak ere praktikatu izan ditut baina txiki-txikitik baloia izan dut hanka artean. Bizioa, ez daukat bizio garbirik, tabakoa ezin dugu erre! Eta Perdizioa, uff... ez nuke esaten jakingo...

**Aitor, bertsotan, sartu al dizute eskudratik golik?**

**Aitor:** Askotan, eta azkenekoa duela astebete. Ion Maiak sartu zidan, ez dakit eskudratik edo erdi-erditik, baina barrura. Eta halakoetan kostatzen da buelta ematea. Ia saioko gertatzen zaizu horrelakoren bat.

**Zuk kantatu al duzu bertsorik, Gorka? Eta zuri kantatu al dizute noizbait?**

**Gorka:** Baten bat bota dut, baina ez dut uste Aitorren bertsosok bezalako etorrerarik izan dutenik... Eta bertsosok niri, bai, baten bat bai, parrandaren batean edo.

**Ba al duzu gustuko futbolarik, Aitor?**

**Aitor:** Beno, ni ez naiz Errealekoa, Osasuna gustatzen zait, eta jende askok dio horregatik ez naizela futbol zalea...

Futbolari gogorrek gustatzen zaizkit, egur pixka bat ematen dutenak, zikin xamarrek (pasatu gabe). Futbolari bat aukeratzekotan, gertukoa delako eta izan duen ibilbideagatik erreferentea.

rente izan daitekeelako, Xabi Alonso, nahiz eta ez den zikin jokatzeko duten horietakoa.

**Bertsolariak ere hala gustatzen al zaizkizu?**

**Aitor:** Bertsotan ere izaera gogorra dutenak ditut gustuko. Artaldean pasatzen ez direnak. Unai Iturriaga, adibidez.

**Gorka, zuk ereduak futbolari bat aukeratu beharko bazenu?**

**Gorka:** Aitorrek esan duen bezala, Xabi Alonso erreferente bat da. Txikitatik Ronaldo gustatu zait, Bartzelonan zegoenean, bere garairik onenean.

**Eta bertsotan, zein gustatzen zaizu?**

**Gorka:** Noizean behin ikusten dut Hitzetik Hortzera eta gustatzen zait bertsosaiok ikustea. Baten bat aukeratzekotan, Andoni Egaña gustatzen zait, Lizaso eta Maialen Lujanbio ere bai.

**Bukatzeko, bata besteari galdera bat luzatzea proposatzen dizuegu. Eta Aitor, zuri, bertsotan erantzutea eskatuko genizuke.**

**Aitor:** Nik kuriositate bat izan dut beti. Futbolariaren bizitza gainontzeko kaleko jendearenaren desberdina da. Pentsatzen dut ez dela erraza izango jendearekin harreman normala izatea. Ez al duzu sentitzen aparte bizi bazina bezala, beste globo batean?

**Gorka:** Ez dakit beste globo batean edo ez, baina askotan zaila egiten da. Kalera irten eta hainbeste begi gaineaz izatea zaila da, zure espazioa edo lasaitasuna ez izatea. Gazte bezala, orain dantza egin nahi badut dantza lasai egitea gustatzen zait, inor begira dudala sentitu gabe. Beti adi egon behar zara, jendeak zer esango duen kontutan hartu behar da. Hori da futbolari izatearen alderik txarrena, mundu guztiak ezagutzen zaituela.

**Gorka:** Nik zera galdetuko nizuke. Pentsatzen dut, bertsotan aritzeko, berezkoa behar dela abildadea, baina landu egin beharko da baita ere, ezta?

**Aitor:**

*Mundu hontara behin sortu eta gero denbora luzean begia jarri behar da urean begia jarri haizean. Konformatzerik ez da egoten bata bere eskasean. Bertsolaria oinarritzen da barruan duen gosean diamantea ere harri bat baita batere landu ezean.*

Esta entrevista se realizó antes de la semifinal de Anoeta del campeonato de Bertsolaris, pero para cuando se publique ya se sabrá si Sarriegi ha llegado a la final o no.



# Aurrera doa Arana eta Iturrioz kaleetako eraikinen BIRGAITZEKO PLANA

Gune horretako bizilagunen %90 informazio bulegotik pasa dira, birgaitze lanen eta laguntzen inguruan informazioa eskuratzeko. Eraikinen Azterketa Teknikoa egin ondoren, egin beharreko lanak eta lortu daitezkeen diru-laguntzak zeintzuk diren jakiteko ordua da.

**¿Qué datos aportó la Inspección Técnica de Edificios?**

Los resultados fueron mejores de lo que esperábamos, pero el portal que en peores condiciones está es el número 5 de la Calle Arana, sobre todo la fachada que da al río.

**¿Cuántos vecinos viven en esas casas?**

Hay 167 viviendas afectadas y, en total, hay 133 propietarios. Muchos dueños están a favor de la obra porque mejoraría su calidad de vida.

**¿Los vecinos se han mostrado de acuerdo con el plan para la rehabilitación?**

Todos han pedido presupuestos y eso es una buena señal. Tienen que solicitar subvenciones antes de que



**Begoña Lasa,**  
Concejala de Medio Ambiente.

finalice el año. Hay dos tipos de ayudas: individuales y para la comunidad. Creemos que las primeras obras empezarán pronto.

**Zein da Aytasaren lana proiektu horretan?**

Bizilagunen eta erakundeen arteko bitartekaritza egiten dugu. Beasainen bizilagunak informatu eta aholkatu ditugu eta bizilagunen %90 baino gehiago bulegotik pasa da.

Bulegoaren bitartez fatxadak konpondu eta igogailuak jartzeko aurrekontuak eskatu ditugu, baina etxebizitza bakoitzaren barruan, bakoitzak ikusi behar du zer egin nahi duen edo zer egin dezakeen.

**Aurrekontuez gain, diru-laguntzak tramitatzen laguntzen dituzue bizilagunak.**

Bai, hala da. Komunitate guztiek eskatu digute hori. Gehienek ekarri dute beharrezko dokumentazioa, baina espediente batzuk osatzea falta da. Birgaitzen integrala



**Eli Manterola,**  
Aytasako teknikaria.

denez, jaso daitezkeen kopurua handiagoa da isolatua izango balitz baino.

**Salustiana Gutiérrez, vecina de la calle Arana 4**

“Yo creo que esta iniciativa está fenomenal, porque muchos no podemos comprar una casa en otro sitio y repararlas es mucho gasto, por lo que la ayudas nos vendrán bien. Para muchos lo más importante ahora son los ascensores, porque hay gente mayor que no puede salir de casa”.

## TASA ETA KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK

Giza talde behartsuenek etxebizitzako ura, estolderia eta zabor tasen ordainketa egiteko laguntzak jaso ditzakete.

**Eskari epea:** Martxoaren 1etik 30arte.

**Antzizar kiroldegiko tarifak ordaintzeko ere laguntza jaso daiteke.**

**Eskaria:** hiru hilabeteko aurreko hila batean (abendua, martxoa, ekaina eta iraila) abonoaren ordain txartela aurkeztuz eta Kiroldegia erabilerara gutxienez %25ekoa izan dela ziurtatuz.

**Eskariak Udaleko Ongizate Sailean egin behar dira.**

**Hileko sarrerak 936 euro baino gutxiago dituztenek laguntza horien zatiren bat jaso dezakete.**



### BONIFICACIÓN EN TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS

Las personas en situación de necesidad podrán solicitar ayudas para el pago del recibo de del agua, alcantarillado y basuras de su vivienda habitual.

El plazo de solicitud es del 1 al 30 de Marzo.

También se contemplan ayudas para el pago de la tarifa del Polideportivo.

La solicitud de ayuda se cursará el mes anterior al inicio del trimestre (diciembre, marzo, junio y septiembre) y se concederá la ayuda previa presentación del pago del abono correspondiente y justificación de la utilización de los servicios del Polideportivo al menos en un 25%.

Las solicitudes se presentarán en el Departamento de Bienestar Social del Ayuntamiento.

Los que justifiquen ingresos inferiores a 936 euros/mes pueden beneficiarse en alguna medida de las mencionadas ayudas.